

Bartali

TXILLARDEGI



NORMALA denez, gazteek Gino Bartali nor zen ez dakite. Geure haurtzaroko Indurain, esan dezagun.

Bakaziotan gaudenez, zilegi bide litzaidake gaurkoan txirindularitzaz lerro hauek idaztea. Uztailako lehenengo asteetan Frantziako Tourra izaten baita aspalidanik mintzagai nagusia.

Hots, lehenengo, eta zein katetan ez dakidalarik, Bartali bera agertu zen; etxe barruko sasi-txirindur horietako baten gainean pedalatzen ari. 79 urte omen ditu.

Segituan kontuak egin nituen. Euskal Herriko lehenengo "Bira" berak irabazi zuenez... 21 urte zituen italiarrak 1935an irabazi zuenean...

Jauzi harrigarria izan da! Handik hiru urtetara "Tourra" irabazi baitzuen lehenengo aldiz... eta 1948an bigarrenez! Zenbat aldiz irabaziko ote duen Mundu-Gerla izan ez balitz?

Gure idolo hura oraindik ere bizi da. Eta trenpu on xamarrean, dirudienez. Zauskanda galanta nire!

"Euskadiko Itzulia" egin ahal izatea... euskaldun batek (Lapobie ez zitzaigun orduan euskal-herriarra iruditzen) inoiz "Tourra" irabaztea... Biak lortuak ditugu aisa.

Eta urrutu-minez oraturik, gazetango odolberoa galdurik ere, denok gaztetzen bide gara Alpeetako eta Añuñemendiko etapa harrigarri horietan barrena koloso horien balentriak miretsiz.

Orain beste amets bat hozitu da gure bihotzetan. Noiz sortuko ote du herri zafratu mindu honek Burujabetza (Independentiaria, bai) gidatuko duen Indurain politikoa?

Bartalik eta Indurainek eman dizkiguten pozak nahi genituzke orain, uztail bero honetan, ikurriñaren inguruan, garaitzapea ospatzen ari. Atarrabian hobe, bestalde. Ez duzu uste?

Liluraturik...

XAN KOSKARAT



UDA! Udariarrak hor ditugu. Isas bazter ala mendi xoko guziak kanpotiarrez beteak daude, Euskal Herriko

leku gehienak lorez apaindurik dira... Herri guzietan, herriko bestak, dantza ta soinu. Gogoa lanetik aparte, izpiritua oportetan. Grinak bazterrera utziak dira: ahantzia lan gabeziaren eritasuna, ahantzia arrantzale ala nekazarien ezin bizia. Ahantziak gure gizarteak beti ta gehiago bazterrera uzten dituenak. Axalezko alegera faltsu baten itxurak, iduzki, soinu ala arno koloreak liluratsen gaitu.

Alta gure bihotz barnean beste min bannakor batzu bizi bizian ditugu. Gogoan dauzkagu joan den asteen Espainiaratuak izan diren 3 euskal militanteak. Egunero Tote Etchevestek jasaiten duena begien aurrean dugu. Ezin onartuzkoak dira.

Frantses Estadoak erabiltzen dituen jokamoldeak dira horiek. Jendearen bantotasunaz baliatuz, jokaera kriminalak erabiltzen ditu. Pello Marinelarenaren heriotza jasan ondoan, Tote Etchevesteren itzulia ote dea gaur? Salatu behar dugu giza eskubideen sortzaileen estadoak, Etcheveste tortura pean daukala eta emeki emeki hiltzera kondenatzen duela.

Gure herriak kanpo itxurak festarenek baldin baditu, barnean min dauka. Aurrera laguna, herria hau obra dezagun.

The Economist

Lapiko irlandarrari eragiten

Londresko parlamentuko bi aldean gehiengoak errekonozitu egiten du Ipar Irlandako odolezko igerikizunak ez daukala soluziorik ikus daitekeen geroan. Gobernu britaniarrak publikoki esaten du Sinn Fein bake elkarriketetara eramateko edozein ideia ia pentsaezina dela. Baina pribatuan Patrick Mayhew Ipar Irlandarako idazkariak berak ere ez du erabak hartzen ideia hau. Ira-Sinn Feinek negoziatzailetan parte hartzeak asaldatu egingo litzuzke protestanterik gehienak. Baina hauek ere kanpokoek uste baino banatuago daude Torkel Opsahl norvegiar akademikoaren lanaren arabera, haietako heren batek onartu egiten du Errepublikak Ipar Irlandako zenbait aferaz zeresaniki izatea. Lauzdenak baino gehiagok ez du odorenerik jartzen Erresuma Batuak Sinn Feinek in hitz egin dezan, honek biolentziari muzin egingez gero. Gallup inkesta batek martoan agertu zuenez, britaniarren % 27k baizik ez dute nahi Ipar Irlanda Erresuma Batuen parte izatea. Baina Major-ek badaki

traizionatutako unionistak ez direna izango IRAkoak baino terroristak samurragoak.

BAGEHOT

Le Monde


Belgika federala

Belgikako Parlamentuak Saint Micheleko deritzen akordioak hartu ditu, Belgika batua estatu federal bihurtzeko. Askok azken aukera ikusten dute akordio hauetan Estatu baten barrenean kohabitatzeko komunitate frankofonoak, neerlandarfonoak eta germanofonoak. Nazionalitateen gorakada eguneroko kontua den Europa honetan, Estatu-nazioaren ideia elkarrekin-bizitzearen kontzeptio etniko huts bihurtzen ari den honetan, Belgika proiektu komunetik gelditzen zaiona salbatzeko ahalegina egiten ari da.

Baina lege konstituzional batek, den onena izanda ere, ezin du garantatuz betirako armonia Quiévrain-ek harandi.

Bruselaren etorkizuna, entitate autonomoa, % 80 frankofonia baina flandriarrek beren lurralde historikoaren partezat jotzen dutena, kolokan dago. Founren-en, gehiengo frankofonoa kantoia, Limbourg flandriarra utzi eta Liejako probintzia har-

ZUZENDARIARI



MÁXIMO / EL PAIS

etze eskatzen duena, noiznahi sua indartzeko arriskua dago.

EDITORIALA

egin

Lekzio ikasia

Maltzaga-Urbina autobidearen inguruko debata gizartera eramatea NIP edo Partehartze Guneen bidez, berrir ona da, erakusten baitu Administrazioa hasi dela konturatsen zenbait erabakik gatazkak sor ditzaketela dagozkien inposatu egiten baizakie.

EDITORIALA

HEMEROTEKA

Intsumisioen gonbidapena Latierra jaunari (PSOE)

Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearen aurrean azaldu ginen eusko intsumisook urte honen hasieran. Saio hartan, PSOEko parlamentari den Latierra jaunak, gu biolentzatzat jo eta gero, Poliziaren aldetik esku hartze biolento desproporziaturik jasoko dugun aldiro bera jakinaren gainean jarri dezagun eskatu zigan, Latierra jaunak berak izan nahi bait du salaketa ipintzen lehena.

Kontuak kontu, aurrea hartu dizuten arren, ez ikusiarena egingo dugu. Orainxe daukazu aukera ederra, Latierra jaunak, zure esanak betetzeko eta uztailak 2an Gasteizen gertatuta salatze; lehenik, inongo abisurik gabe protesta antimilitarista pazifiko baten kontra zartakoka hasi; gero manifestari bati burua ireki porra kolpez; eta borobiltzeko, bere zenbak

profesionala emateari uko egin zion polizia astapetro batek.

Sasoi onez eta gogoz bazabiltza, salatu dezakezu baita ere bere nagusi edo mandoa (esangaratsua hitza, alajaina!), honek ere uko egin bait zion hasiera batean bere zenbakia emateari.

Laister arte Latierra jaunak. Hor daukazu gonbitea

MARIO UNAMUNO ETA BESTE 23 SINADURA

Gasteiz

Getxoko Udal Euskaltegia Udalaren erabakiaren kontra

Getxoko herriari: Gutun honen bidez Getxoko Udalak hartu berri duen erabakia salatu nahi dugu. Uztailaren klaseak bukatuta, ikasleak eta irakasle gehienak oporretan zeudela, Udalak

Algotortako Udal Euskaltegiaren zentroa desagertarazteko erabakia hartua zegoela jakinarazi zigan.

Dakizue, Getxoko Udal Euskaltegiak 1985ean atekazabaldu zituen Algotortako zentruan, hain zuzen ere. 1980tik hona, Algotortako zentruak ez du ikaslegoaren murritzetik ikusi, berneurritzeko direla eta kalean geratu behar izan direnak ezik.

Badakigu zer nolako zailtasunak izaten dituen jendeak euskara ikasteari ekitea erabakitzen duenean denbora falta dela eta. Gaur egun, Getxoko Udal Euskaltegiak Algotortan daukan zentroan ikasten diharduen hainbatek eta hainbatek ezin izango dute euskara ikasten jarraitu. Guztiko gaitzespena merezi duen erabaki honen kontra azaltzeko sinaduren bilketari ekingo diogu.

Guk bezala erabaki honi ezetzapena ematea pentsatzen duzuen guztioi deia luzatzen dizuegu.

UDAL EUSKALTEGIKO KLAUSTROA

Getxo (Bizkaia)

GAIA JARRITA



Bruno Loi

Jeneralaren gailo ederrak izanagatik soinean, armak utzita elkarriketan zabilta ahaleginean. Amerrikarek beste legerik konprenitu ezinean, ametsa behintzat bizirik dago zure kasko urdinean.

JON IÑAKI IZARZELAIA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

ODJDI IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: IÑAKI URIA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitatea: PUBLICITAS

Captain Hays 1, c.a. 20020 Madrid w. 91 555 11 01 / Fax: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriadela 01-02 Pablikoak /

20160 Lasarte-Oria / w. 37 15 45 / Fax: 36 54 93

Egiltza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Laktuna,

16-1 / 20010 Donostia / w. 46 90 22 / Fax: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / w. 23 38 72 / Fax: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Iruñizko dorrea) / 31011 Iruñea / w. 17 80 7879 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Eparantzua, 2-1. ezker. / 48003 Bilbo / w. 410 40 46 / Fax: 410 37 15

Lapurldi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila. / 64105 Baiona / w. 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11